

*Balendin Aurre Apraiz geure-geurea genduan Karmelen. Esana dogu gerra aurretik Ekin astekarira Ajangizko barriak bidaltzen zituala. Une latzetan, kartzelan eta abar olerkiak idatziz asaskatzen zan, baita hainbat urte geroago Caracasen herriminez egoala be. Euzkadin, Euzko Gogoan eta beste hainbat aldizkaritan argitaratu zituan bere olerkiak. Olerti eta Karmel aldizkarietara burreratu zan nabiko goiz, 1950eko hamarkadan. Harrezkero bere aldizkari gogokenak izango zituan. Aldizkari bion inguruan zebiltzan karmeldarren eta gainerako idazle batzuen adiskide min egin zan.*

*Orain, gure ondotik joan barri danean, zorretan ikusten ditugu geure buruak eta haren omenez eta gomutaz idazlan bi argitaratzen ditugu ale honetan: bata, Balendinen bizitza eta olerkigintza agertzen dituana; eta bestea, haren bibliografia dakarrena.*

## BALENDIN AURRE APRAIZ, AJANGIZKO OLERKARIA

Balendin Aurre Apraizen azken argazkia dot aurrean eta bu-ruan. Iazko maiatzaren 27a zan, *Karmel* aldizkariak urtero bere idazleei eskeintzen deuten bazkari-bilera eguna Markina-Xe-meinen. Bastoiaren laguntzaz ikusi neban; adinaren nekeak arintzearren-edo. 94 urte laster egiteko izan arren, nahiko gordin ikusi neban; adin horretarako oso ondo. Karmeldarren eliz ondoko harizpean eta Goiko Portaleko plaza ertzean gengoan, kontu-kontari. Aspaldiko ezaguna ninduan eta une baten isilekoren bat kontatu nahi baleust legez, barrura sartzeko keinua egin eustan. Karmengo eskapularioa eskatu eta hau izango zala bere azken “Karmel eguna” ziraustan ahots leunaz. Gogoeta egitera eta barruko seinaleak irakurtzera eginikoaren ziurtasuna ageri eban bere berba egiteko moduan. Olerkarien patriarka agurgarria profeta bihurtu zan une batez. Orduan ez nintzan ohartu eta haren bihotza jasotzen ahalegindu nintzan. Ez egoan triste, baina bai hurran sumatzen eban heriotzaren aurrean errespetuz. Euskarria, babesa nahi eban ordu haretarako. Karmengo Amaren eskua. Halan zirudian behintzat. Horregaitik eskatuko eban haren eskapularioa. Apirilaren 19an hil zalako barria entzun nebanean ohartu nintzan zuzen egoala susmo edo bihozkada ha agertu eustanean. Bete-betean igarri eban.

Gero Iturretarantz jo genduan eta han bazkari on-ona eta bazkalondo hobea. Balendin neure ezkerraldean neukan eta lehen komentuko atartearen esana barriro esan eustan belarri ertze-  
ra. Halan be, berak olerkietan erabili ohi eban hitza erabiliz, ba-



*Mendieta Agerre, Ajangizen (Bizkaian).*

rruko “kadentasuna” (tristura) ondo ezkutatu eban gainerako mahaikideen aurrean eta kantari ekin eutsan, batez be abertzale giroko abestiak ahots zoliz eta sentimenduz abestuz: “Ene Aberri laztana...”, “Askatasun-eguzkia basotik urtenda...”. Baina baita umorezko kopla xelege batzuk be: “Txomin eta Bartolo...”.

Ermita aurrean argazki bat edo bi egin eta pozik agurtu genduan alkar, datorren urtera arte esanaz. Pozgarria izan da, *Karmelen* bitartez, Aurraitz olerkaria gaurko idazle eta poeta

gazteen aurrean hain jaseko, sotil eta jator agertu izana. Izan be, euskal idazle eta poeten katea ez dala eten esan nahi dau horrek eta Lauaxeta, Kirikiño eta abar hur-hurretik ezagutu ziztuanak gerra aurreko eta osteko airea ekarri dau oraingo idazle heldu eta gazteengana. Apurka-apurka badoaz mundu honetatik ostenduz eta Aurraitz belaunaldi haren lekuko garbi eta be-rezkoa izan da. Hauxe da Ajangizko olerkari agurgarriaren azken irudia; hango argazkia da idazlan hau idazten dihardudan bitartean aurrean eta buruan dodana.

## **Bizitza**


*Egunen Bidean* liburura jo dogu. A. Luis Arostegi, munduko Karmeldarren Jenerala, da Balendin Aurre Apraizen olerki guztiak biltzen dituan argitalpen hori prestatu ebana. Hitzaurre nahiko luze eta mamitsua atondu eutsan, olerkariaren bizitza eta olerkietan ageri dituan joerak eta barne-aldea, labur bada be, taxutuz. Hortik hartuko ditut ondorengo bizitza-zertzeladarik gehienak.

Balendin Aurre Apraiz Ajangizen (Bizkaia) jaio zan 1912ko zemendiaren (azaroa) 3an Mendieta-Agerre baserrian. Elizaldetik beherantz dago. Errekasto bi oinetan: Errekatsu eta Artotza eta hainbat tontortxu inguruan: Gantzabal, Eperti, Kortxagan eta Burgo.

Gurasoak, aita, Erruperto Antonio Aurre Iturriaga, Muxikako Posueta baserrikoa, eta ama, Juliana Apraiz Intxaurreaga, Mendatakoa, Solaurren baserrikoa. “Aitak ipuin eta jazokizun asko kontetan ekian, Zanturatuena egiten, eta gangaillena, umeai eta abereai begizkoa osatuten... J.M. Barandiaran Mendieta-Agerren izana zan Balendinen aitaren zer berezi oneek jasoten”<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> AURRE-APRAIZ TAR BALENDIN, *Egunen Bidean*, Larrea-Zornotza, 1994 (Luis Arostegiren Sarrera, 6. or.)



Hamar neba-arreba ziran. Balendin gazteena. Lehenengo hirurak ez zituan ezagutu, umetan hil ziran-eta. Herriko eskolan egin zituan ikasketak. Goragoko mailako ikastetxerik ez eban zapaldu, baina berez zan argia eta irakurtzeko zaletasunaz eta eskolaz jantziak edo ikasiak ziranekin izaniko hartu-emonetan ondo landu eban burua. Umetatik izan eban olerkariaren sentipen fina. Musika zalea be ordurik dogu. “Txikitan, elizan abes-teko organo-jotzailleak musika apur bat irakasten eutseen umeai. Ortik sortu jakon Balendini filarmonika eta txistua jotzen ikasteko zaletasuna. Erriko ezpata-dantzarien taldean txistularia izan zan”<sup>2</sup>.

Eskola-sasoia amaitutzat emon ebanean, guraso eta anai-arrebekin bizi zan, baserriko bakean lan eginaz. Hemeretzi urte zituala, soldadutzara joan zan, Ferrolera. Urte biko egotaldia han eta etxera bihurtu zanean, baserriko lanetan jarraitu eban. Euskaltzaletasunak eta herriko abadeak eraginda, “Jainko-zaleak” taldeak argitaratzen eban *Ekin* astekaritan idazten zituan herriko albisteak. Lauaxetaren *Arrats-beran* ezagutu eban 1935-1936 inguruan.

1936ko gerra hasi zanean, “Jon Telleria” Konpainian sartu zan lehenengo, eta “Itxasalde” Batailoian gero: Kanpazarren, Urduñako San Pedro mendian, Legutiano inguruan, Gorbeiako Igeriñaon, Elorrio aldean, Arrazolan, Durangon, Matxitxako eta Sollube aldean, Bermeoko erasoaldian. Gerra-suen artean be olerkiren bat edo beste idatzi eban. *Euzkadin* argitaratu eban bat 1936ko azaroan.

Artxanda mendian jausi zan izterretik oinetara zauriturik, 1937ko ekainaren 16ko gauerdian. Hiru egun barru, Basurtoko ospitalean egoala, harrapatu eben arerioak eta batetik bestera erabili eben: Basurtotik Algortara (Hirukoiztarren erietxera), Santa Mariara (Bilboko zezen-plaza ondora), Loiuko barraka batzuetara, Deustuko Unibertsitateko atxilotuen zelaira. Bost

---

<sup>2</sup> *Ibd.*, 6. or.

BALENDIN AURRE APRAIZ, AJANGIZKO OLERKARIA



hilabete egingo zituan han eta handik Eskolapioetara eroan eben epaitua izateko. Epaia: sei urte eta egun bateko kartzela. Dana dala, suerte handia izan ei eban. Hona *Egunen Bidean* liburuaren sarreran datorrena hitzez hitz: “Egitez, eriotza zigorraren arriskua izan eban, baiña aitabitxi karlistaren adiskide batek atzeratu egin eban Balendinen auzialdia, eta, bitartean, etsaiaren amorru-sua baretu egin zan zelanbait. Epaitu ta gero, oindiño Deustura eroan eben, barriro, eta Eskolapioetara (ordura ezkerro baitegi biurtua), eta azkenez Larrinagara.

Zigorraren zergaitia erriko Aiuntamentutik aurkeztutako salakuntza bera izan zan: 1) *Colocaba ostentosamente la bandera separatista frente a su casa en un árbol* (San Migel egunean eta beste jairen baten). 2) *Reclutador de voluntarios* (Euzko Alderdi Jeltzaillearen eskaria jakin azo eutsen lagunai)”.

Gutziz hiru urte eta hiru hilabete baino gehiago igaro zituan arerioen mendean, erietxeetan, batetik bestera eroana edo espetxean. Zauritua izan zanetik lau hilabete egon zan ohetik jagi barik, eta urtebete ibili zan herrenka, lehenengoetan makuluekin eta gero bastoiaz. Espetxean egoala, tristuraz eta bakar-dadean, olerkiak idazten asaskatzen zan. “Otz samiña” olerkia izan zan kartzelan lehenengo eginikoa (1939).

“Espetxean egoala il jaken aita. Espetxetik urtekeran askatasunaren bizikizun zoragarria izan eban, arbolak be usaindu be arrear, ain barri eta miresgarri jakozan. Baiña ama, samiñak auldu, zaarrago aurkitu eban, eta, aitaren faltan, tristeago etxea. 1940eko urtea zan. Balendinek baserriko lanari oratu eutson. Orain, baiña, izandako guda triskantzen eta espetxeko ordu eta urte illun izugarrien samin sorraz, eta menperatuen etsipenaz. Menperatuak euren berbetea eta erri izakera guztiak galerazota eukezan. Bildurra eta zemaia beti ganean, salakuntza eta zigorren bat noz jausiko. Balendinek, baserriko lanen artean, olerkiak idatziz asaskatzen eban barru zamatua”<sup>3</sup>.

<sup>3</sup> Ibid. 7. or.






*Jaunaren Igokundeko Eliza Mendietan.*

Irakurle fina zala esan dogu. *Alos-torrea* (1950) irakurri ondoren, honen egilegaz, Jon Etxaidegaz, hartu-emonetan jarri zan. Jon Etxaidek Guatemalan argitaratzen zan *Euzko Gogoa* aldizkariaren eta honen sortzaile eta zuzendariaren barri emon eutsan. Jokin Zaitegik aurreko ale guztiak bialdu eutsazan. Aldizkari horretan argitaratu eban bere lehenengo olerkia 1951n, eta aldizkariak bizirik iraun eban artean bertako lankide izan zan Balendin. Laster ezagutuko zituan gure *Karmel* aldizkaria eta beronen inguruan zebiltzan karmeldar euskaltzaleak be; lehenengo Martin Duñabeitia (A. Libino), sasoi haretan aldizkariaren zuzendari zana eta, gerotxuago, Santi Onaindia eta Lon Arteaga. Hatan be, orduantxe ziharduan harek *Milla Euskal-*



*Olerki Eder* prestatzen; Lon Arteagak, barriz, inprimategiko probak zuzentzea eta beste hainbat zeregin izan zituan bere gain. Horretan murgilduta egozala ezagutu zituan gerora adiskide min izango zituan karmeldar euskaltzale biok. Beraz, obra garrantzitsu horren jaiotza aurretxuaren lekuko izan genduan. *Milla Euskal-Olerki* aitatu dogun ezkerro, esan daigun Aurre Apraizen 9 olerki argitaratu zirala liburu horretan (1954). *Egan* eta *Aranzazu* aldizkarietan be argitaratu zituan olerkiak.



Izenordeak erabiltzeko joera handia zan orduan. Ajangizko olerkariak “Mendi-bide”, “Agerreko Balendin”, “Balendin Agerreko” eta “Aurraitz” erabili zituan. Azken hau eban, antza, gogokoena eta gerora hau baino ez eban erabiltzen.

Venezuelan bizi izan zan 1958tik 1964ra arte. Han adiskide bat eukala eta gogoia berotu jakon. Ordurako amaituta eukan lehenengo olerki-bilduma: *Gogo-zelaietan*. Caracasen, zeri edo hari heldu behar eta, zerbitzari hasi zan lanean. Tximeleta-begizta (pajarita) eta guzti bere burua ispiluan ikusi ebanean, esan ei eban: “Balendin az i?” eta beste barik, lanbide hori itzi eta denda baten hasi zan lanean; geroago petrolio-konpainia baten eta, azkenez, Guayanako basamortua lur emonkor bihurtzeko proiektu baten...

Dana dala, ez zan bertakotu. Herriminak jota bizi zan atzerrian. Sei bat urte han ozta-ozta egin eta Euskal Herrira bihurtu zan. Hango egotaldiaz hau dino Luis Arostegik *Egunen Bidean* liburuaren sarreran: “Venezuelako egotaldia oparoa izan eban euskal lanetan. *Errimiña* olerki txorta ondu eban, eta *Ekaitza* poema; ganera R. Tagore´ren *Txitra* antzerki laburra eta *Txori galduak* euskeratu ebazan. *Eganen* argitaratu zituan (...)”.

Ettxera bihurtzean, betiko toki gozua aurkitu eban, bere-be-rea. Gehiago ez eban joko handik inora joateko tentaldiak. Izan be, poz-pozik bizi zan baserri giroan, hango lanetan, eta euskal olerkari eta idazleekin hartu-emonetan. Aldizkari hone-etan idatzi izan dau, batzuetan noizbehinka eta besteetan sarriago: *Egan*, *Karmel*, *Olerti*, *Príncipe de Viana*, *Irrintzi*, *Goiz-argi*, *Zer*, *Euzkadi*, *Aldaba*. “Batez be *Karmel* eta *Olerti* izan ditu artuemon eta agerpen bideak”. Ezagutu zituan ezkerro, beti leial iraun eban *Karmel* eta *Olerti* aldizkarietan idazten azken-azkenera arte. *Menperatuen didarra* liburua eratu eban aldi honetan idatziriko olerkiez. Urte horreetakoak dira *Lauaxe-taren sei aldi* eta *Laien alditik tratoreen aldira* poemak be. Olerkiez gainera, hitz lauuko idazlan laburtxuak idatzi ohi zituan noizbehinka.


## Gerra aurreko belaunaldien lekuko

Gerra aurreko belaunaldi euskaltzale eta abertzalearen lekuko fina dogu Aurraitz. Orduko ingurumari abertzaleak harturik, hainbestek ekin eutsen aldizkari eta egunkarietan idazteari. Sabin Arana-Goirik lehenago eta “Aitzol” eta beste batzuek geroago ereiniko hazia erneaz doa. Aitzolek ideiak argi ditu: Euskal Herria komunidadekultural legez harturik, olerkiaren betebeharrak garbi ikusten dau. Olerkiak herria iratzartzeko dauan egitekoaz dihardu Lauaxetak be. Honek, olerkari sentibera eta bikaina izanik, hur-hurretik sumatzen dau eragin ongarri hori. Hau da, olerkia ez da harentzat ederraren bilaketa eta eraiketa bakarrik, baita Herriaren eraikuntzan erabili leiteken bitarteko ezin hobea be. Hona haren berbak *Euzkadi* egunkaritik hartuta: “Olerkarijak langorik eztago erri bat itxartu-erazoteko, lur barnian datzan azijak zelako ots biguna egin daruan be, entzuten baitau berak”.

Dana dala, ingurumari abertzaleak harturik egozan guztiak ez ziran idazle eta gitxiago olerkari. Idazlantxo batzuk edo bertso banakak han-hor-hemen argitaratzea, gehiagoko barik, ez da nahiko norbait idazle edo olerkari egiteko. Lehengo aipamenaz gain, Lauaxetaren beste bat ezarriko dot hemen, hari-harira datorrena. Holantxe dino *Arrats-beran* olerki-liburuaren sarreran:

“Ludi onen bestaldez loratzen diran landaraen usañak goxalde bakotzak dakarkidaz. Auxe da neure sakona! Bestiak entzuten eztaben egal-otsa neure gelara yatorrt eta barneko zugatz oneitatik txorijak aidatu ziranarren, abar-dardarea ezta amaitu”.


Beraz, dohaina da, horretarako dei sakona. Barru minberari bihotz ondoan zimikoa egiten deusana; olerkaria bere sentipenen gordelekuan, ederraren ikuspegiaren ezarri ohi dauana. Hortik aurrera, sentimendu gozo nahiz saminez, bihotz-dardara fin eta ederrez jaso dauana, adierazo be halantxe egin behar dau, gizakiaren gogoan sorturiko mirari hori, erne orduko itoztea tamalgarri litzateke eta...



Aurraitz-ek ezagun-ezagun dau dohain hori. Bere barruan altxor hori aurkitu eban gazte-gaztetarik. Irudigile baten antzera, berbazko lantegi miragarri horretan sarri-sarri barneratzen jakin dau. Izan be, altxor hori zaindu eta landu beharrekoa da; barne-isuri hori olerkiz, bertsoz, jantzi ederrez agertu behar da. Eta hori etenbako lehia gatxa izan ohi da, barruko isuri goren horrentzat eihoten dan soinekoa beti be zarpailtsua begitan-tzen jako olerkariari eta.

### **Baserritar olerkaria**

Gure baserritarren artean ahozko etorri ederrekoak eta bertsolariak ugari izan dira. Olerkari eta idazleak, oster, banakak baino ez. Olerkarietatik, Balendinez gainera, beste bat ezagutu



*Balendin Venezuelan.*

neban: Martin Ugarte “Saletxe”, olerkari fina eta jantzia. Balendin, ustez, harro egoan baserritarra izateaz eta baserriko giro eta bizitza inspirazio-iturri oparoa izan eban. Lehenago *Karmel* honetan hau idatzi neban Aurraitz olerkariari buruz: “Ikasketa berezirik bakoa, baserritar olerkaria dogu; landan berez-berez ernetzen dan lore usaintsua lakoan”.

Apur bat aurrerago be, Balendinen baserritar izateaz jardun neban: “Beren-beregi onartu eta bedeinkaturiko nekazari-bizitzan izadiak gozo laztandua ikusten dau bere burua. Izadia dauala dirudi bere olerki-iturri. Hortxe aurkitzen dau goi-arnasa edo, nahi bada, etorria. Izadia liluraz, mirespenez, eder egarritz begiratzen daki. Ez da Aurraitz izadia ezinbestean bere ondoan onartzen dauana, haren lagun min izanaz, haregaz hartu-emon erraza dauana baino”<sup>4</sup>.

Ia berban-berban ageri eban hori. Hona zer dinoan ahapaldi baten:

*Baina ni baserritarra naz,  
baso-basoko bakartasunaz  
olermenaren egoak naroen  
ameslari baketsua.*

## **Joera eta olerkigintzako euskarriak**

Karmel Sorta-k argitaratu eutsan *Egunen Bidean* liburuaren sarreran Luis Arostegik, ohi dauanez, zehatz aztertzen dau Aurraitzen olerkigintza. Haren olerkietan ageri diran gaiak ugari dirala dinosku, baina guztien gainetik hiru honeek: izadia, aberria eta guda. Hemen sartzen ditu espetxea eta guda osteko gomutapenak be. Dana dala, Luis Arostegiren lana hor dago, liburu eder honi jagokon osagarri egokia; edonorentzat esku-eskura eta irakurgarri. Ni *Egunen Bidean* liburuan barrena eginiko ibilalditxoan baturikoak neure erara taxutzen ahalegindu


<sup>4</sup> *Karmel*, 1999-3; 62, 64





nintzan. Goratxuago aipaturiko idazlan horretan landu neban Aurrantz olerkariaren alde hau; bihotz-bihotzez eta ahalegin handiz landu be. Handik aldatuko ditut atal honi jagokozanak:

Bizitzari darion olerkia dala esango neuke Aurrantzena. Egu-neroko bizitzaren harian dihardu bere olerkiak ontzen: Aberriaganako sentimendu minberatik; gerrateko ekaitz-giro larritik; espetxeko egonezin eta askatasun gosetik; atzerriko herri-minetik; izadiaren altzo maitetik; Euskal Herriko giro aldakor eta erretik; euskera lorrintzeko edo galtzeko arriskuak sorturiko itsaso nahasi eta saminetik... Olerkariak guztia dau olerki-gai; jazoerarik hutsalenak, ezerezenak dardara eragiten deutse barruan. Baina, bidezko danez, jazoera bakoitzari jagokon hotssez, doinuz onduko ditu gero olerkiak. Harmoniaren ñabardura horreetan, aire gozoa, narea, samina, bizia, larridurazkoa, garratza agertuko da... Baina urruneko edo gain-gaineko begiradaz olerkiei adi jarri ezkeru, tristura edo, berak sarri darabi-



len berbeaz esateko, kadentasun-sentimenduak hartzen gaitu. Gerra aurreko olerkarien ezaugarria dala esan ete leiteke? Asko ikusita, gure herriaren zoriagaitik negar dagien arima samur eta leialen tamal ezin gordezkoa.

Aurraitzek asko hartu dau izadiaren altzotik. Oso emonkor jako eta ezin ahaztuzkoa. Horregaitik barru fin batek jaso eta eihoak dira olerki honeek. Berak be horren kontzientzia argia dau eta beren-beregi adierazten dau. Olerkia goitar ikutu batek sorturiko arimaren hizkuntza dala esango deusku eta hizkuntza hori ulertzeko barru minbera izan behar dala:

*Izadiaren eragiñez goitar ikutuak  
sortzen dauan arimearen izkuntzea dogu  
olerkia. Arimearen izkuntzea ulertzeko,  
baiña, barru minbera izan bear.*



Izadiagaz batera urtaroak be olerki-iturri garden jakoz. Pinzelkada ebagi eta arinez taxutzen deusku udazken goiza:

*Basoak musker.  
Edoiak odol.  
Mendiak urdin.  
Egoia dabil landetan arin.*

*Txoriak bizkor.  
Zidorrak orbel.  
Arruak bakez.  
Biotza samur izadia lez.*

*Ingurua ixil...  
Itun ala alai  
nagon ez dakit:  
urrunen otsa kaden datorkit.*

*Goiz gardenean  
jarei gogoia.  
Gorantz doazkit  
gogaiak, zelai garbietatik.*

Bertso pausatuagoak dira neguaren sarrerakoak. Hona aha-paldi bi:

*Agura agiri dira Oiz eta Bizkargi.  
Txindorra etxondora, gosez, erostari.  
Laiotz-aize gordiñak zorrotz, arru zear,  
edatu dauz egoak, minberakor ta azkar.*

*Edoi baltz ugarien arrakaletatik  
eguzki-izpi larriak datoz moteldurik,  
otzak indargetuta, noz-bein larreetara.  
Ituna dabil egun txatxarrez minbera.*

Ia olerki guztietan ageri dau, batzuetan ezkutu geratzen dana eta besteetan beren-beregi adierazten dana, erlijiotasun sakona. Gogoaren barneko atsegina... ia kontenplazio mistiko, jainkotiarra bihurtzen da noizbehinka. Beti be izadiaren



*Balendin Berriotxoaren kanonizazioko bidaian (Pisan).*

babesean eta haren altzoan. Holakoa dirudi “Baso-basoan” deritxon olerkiaren azken ahapaldia. Lehenengo lauretan ilunabar bareko irudiak agertzen ditu. Hirugarrenak holantxe dino:

*Griñen egarria tatarrez  
biotzak gaitzetsita ero.  
Kadentasun leun-leunak ixil  
inguratu nendun emaro.*

Eta, azkenez, ahapaldi banakoan, lehentxoago aitatu dodana:

*Barru-bakartade ezkutuan  
zabizan atsegin gardena.  
Argi adierazten daustazu  
ludiz-andiko zoriona.*

Denboraren joana be ia olerkari guztietan agiri dana dogu. Aurraitzen olerkietan ohiko euskarria da; ez, beharbada, beste batzuk baizen sendoa. 320. orrialdean datorren olerki laburra hartu geinke adibidetzat:

BA-DOA

*Gure bizitzea ba-doa,  
orbelak aizean lez,  
jausi ta jagi, aiz eta heurt,  
joan, joan eta joan.  
Amesak, amesak, amesak.  
Eta gero?  
Ene, gero...!*

Maitasuna be, sakon-sakonean nahiz agirian, baina ia beti dogu Aurraitzen olerkietan. Adibidetzat “Samina” izeneko olerkia hautatu geinke. Luzeegi ez izatearren, lerrotxo batzuk aldatuko ditut hona:

*Nekanetxu gaixoa!  
Larrapastada baten*

*galdu zendun bizia.*

*[...]*

*Oi, Nekanetxu gaixoa!*

*Anker eta gaiztoa*

*izan yatzun mundua.*

*Negar, negar ta negar*

*naukazu arrezkero.*

*Zeu zintzazan bakarrik,*

*munduan, nitzat ona.*

*Nire biotza mingots*

*geratu zan, ta zeure*

*oroi ixillaren jarrai*

*il zan nire asmua.*



*Balendin Berriotxoaren kanonizazioko bidaian.*

Baina Aurraitzen olerkia ez da beti sentimendu sakonetan eta maitasun kadenaren mahaian ondua. Bizitzari darion olerkia dala esan dogu goratxuago; eta bizitzak ozpinez eta saminez beteriko mahai atondu izan deutsa sarri. Holakoetan, arima urratu baten oihu bihurtzen da haren olerkia. “Gau itzela”, 232. orrialdekoa, jarriko neuke adibidetzat; errealismoa eta dramatismoa ditu ahoan. Ahapaldi guztiak, azkenengo biak izan ezik, esaldi larri berberaren gainean eregita dagoz; “Gabe-ko ordu biak”. Azkenengo bietan, gau ilunean espetxe-koak hilak izan diranean, sarrerako esaldia be aldatu egiten dau, hilkanpai tristea balitz legez; “Odolezko goizalde!” dino azken aurreko ahapaldiak eta “Egun-senti larria” azkenengoak. On litzateke olerkia oso-osorik hemen ezartea, baina luzea da; hona ahapaldi batzuk:

## GAU ITZELA

*Gabeko ordu biak!  
Gau ilhuna...!  
Izarrik ez dago ortzian.  
Ixillik dago mundua.  
Gabeko ordu biak!*

*Lo, nasai, ardurabakoak.  
Erloxuaren tik-tak mintzobakarra,  
ormatik dingilizka,  
baituen gogoak astintzen.  
Itxaropen ausien gaba!  
Giltz-otsak baitegian  
il-gaien billa urduri.*

*Gabeko ordu biak!  
Umel eta ixil dagoz ormak,  
gorrotoaren umeltasun larrapaskorraz.  
Maitasunaren lorratzak  
urratu ditu gau baltzak  
eta agertu da Balbea,*





*gau-lapurren antzean,  
begitzar ankerrakaz,  
maitezko arnasak ebagi guraz,  
aiotzaren sorbatz zorrotza  
eskuetan jauzkari dauala.*

*Gabeko ordu biak!  
Iltamuko itxarote larria!  
Sastakaian artean, lokarriz,  
kate astunak bizkarrean,  
bost abertzale  
sartu ditue,*

*birao ta bultza,  
erailléen belbil itxusian.*

*Gabeko ordu biak!  
Erioa ´ren zain dago,  
baso-artean,  
illerriko ixiltasunaren bakea.  
Eldu da, il-gaiakaz, belbil baltza,  
eta jaurti ditue, amurruz,  
opagaiak lur otzera.  
Ixilik dagoz,  
ixil zaratatsuz,  
illerriko arriak...*

*Egun-senti larria!  
Odolez gorri  
agiri dira zelaiak  
neguko aro izoztuan.  
Illun dago sorkaldearen bekokia;  
oiñaztu ta ostotsez agertu da  
zeruen asarrea,  
eta urduri ezkutau dira  
erailléen esku odolduak.*

Antz-antzekoa da 325. orrialdean datorren “Eriopetuen gaba”. Arima saminduaren oihua dogu “Illuntze urratua” izeneko olerkia. Bere auzoan jazo danak bihotza kolpatu deutsa olerkariari. Lehenengotan harridura antzeko auhena nabari da:

*baina  
basoraiño be eldu yaku Erioa.*

Ahapaldi baten “Haltzak eztü bihotzik, / Ez gaztanberak ezürrik” koplaz zahar hareen antza hartu deusat. Holantxe dino:

*Erioa ez dauka biotzik,  
ez eta galtzaiduak be errukirik:  
edenduta dago aroa.*



*A. Santi Onaindia eta Aurre Apraiz gazte batekin.*

Indar berezia dau olerki honek; “Gau itzela” izenekoan legez, lekuko izateak eta barruko zirrara lehertu beharrak damotsan indarra. Lekukotasun larri hori zertzelada zehatzetan da batez be ezagun:

*Eta  
zugazpean datza odola.  
Zuzentasun-billa ebillanaren odol gogortua.  
Arkondara zulatua,  
oiñetako urratuak eta  
jerse odoldua.*

Baserriko abereak be negar dagiela dirudi:

*Zoritxarrak egin dau egitekoa:  
etxe-bizitzak erdi-utsik,  
itun dantzudaz abereen morrosa  
ta orroe tamalak [...]  
Loak ez dau baretasunik  
oiñazetuen gomuta larriaz.  
Txakurren alarau apurtuak iruntsi dabe  
illuntzeko eresia.*

Hari honetako gainerako olerkietan legez, behin eta barriro datorren irudia agiri jaku hemen be:

*Eta  
Balbearen aiotzak dis-dis dagi, illunpean,  
biotz bagakoaren argi zikinduaren bultzadaz.*

Eta lehenengo ahapaldia eta azkenengoa, sarrera eta amaiera, bardintsuak dira:

*Piñudi baltzen erdian nago,  
gogapenen zidorrez maratuta.  
Illun eta itzel inguruak,  
neure gogo baizen illun.*

“Amaren eriotzea” izenburua dauan olerkian be antzeko berba eta irudiak datoz; ahapaldiak ez, baina hareetako esaldi



*Karmel aldizkariaren bilera baten Markina-Xemeingo Iturreta auzoan (2005).*

adierazgarrienak aldatuko ditut hona: *gau itzel eta baltza; tximist eta ostots; malko ta atsekabe; sastakaia gori; ixiltasun luzea; Erio baltzaren oiñotsak; Balbearen sorbatzak dis-dis...* “Gau itzela” olerkian legez, hemen be “gaua” eta “goizaldea”. Gau iluna da amaren heriotzako gaua eta herioak berea egin ondoren, goibel dator goizaldea:

*Gauaren ezkutu illunean  
Balbearen sorbatzak dis-dis dagi.  
Eria bertan-bera, begi-zabal,  
bizitza-ertzean, il ez bizi.*

*Goibel dator goizaldea.  
Ta Erio ankerrak ebagi dautso  
ama maiteari arnasea.*

## **Euskaltzalea**

Badakigu A. Santi Onaindia zanak Olerti-eguna eratu ohi ebana urte luzeetan. Batzar horreek ez ziran jendetsuak izaten; hamar-hamabi lagun inguru. Baina joaten ziranak betikoak eta guztiz leialak. Halakoetara ez eben hutsik egiten Baledinek eta beste hainbatek. Halako baten, sari-banaketa egin osteko atsendenaldi baten, A. Santi irribarrez zirika hasi jaken Balendini eta besteren bati, mutilzahar kontuak aitatu... “Gu mutilzaharrak? Gu fraideen antzekoak gara”, erantzun eutsan Balendinek. Horrekin esan nahi eutsan ez dirala taberna zulokoak, ideal baten atzetik diharduenak baino. Ideal hori, jakina, euskera zan.

Aurraitzek euskera dau bere kutuna. Harek darabil, harek piztu ohi deutsa barrua. Euskera da haren abertzaletasunaren oinarria. Euskera bera be, izadiagaz batera, olerki-iturri garden jako. Euskerak hartzen dau olerkaria eta olerkariak hartzen dau euskera, ahalik goren jasoaz.

Berak esana da, behar ez dituan adaxkak moztu eta euskera berpizteko, olerkia lakorik ez dala: “Zabarkeriz bertanbera itxitako zugatzaren antzean, iñausketa on baten bearrizanaz



*Karmel aldizkariaren idazleen bazkarian (2005).*

dago gure izkuntza zaarra, bear ez dauzan adaxkak kenduez kimu barriak emon dagizan. Onetarako, olerkiak lakorik ez.

Arrera ona izango al dabe, geure izkuntzea berbizi guraz, baso-basoan egindako neurtitzok”.

Olerki-hizkuntza eregiten eginiko ahalegina ageri-agerikoa da Aurraitzengan. Garai batzuetan bertso jarrien antzeko olerkiak idazteko ohitura handia zan. Horretan, beharbada, Aitzo-

len ideiak, abertzaletasun-sentimendua adierazteko eta herrian zabaltzeko bide errazagoa zalakoa eta abar izango ziran eragile. Dana dala, Aurraitz goragoko maila baten ikusten dogu, bai ahapaldien egituraren aldetik, bai irudien aldetik eta bai hizkuntzaren aldetik. Hizkuntza poetikoari goian eusten deustsa.

Orain ez dogu horretan zetan luzaturik, baina hiztegiari ja-gokonez, baditu berariaz maite dituan berbak, gainez eginda legez behin eta barriro dariozanak. Berba horreek haritik at hona ekartzea ez da egokiena, baina esanguratsuenak-edo ekarri egingo ditugu haren hizkeraren ezaugarri:

**Kaden:** *kaden* egozan inguruak, / ixil etorran illargia (115). **Kaden**, *uda-min*, *gora begira*, / *ixilla zaintzen makal luzeak* (80).

**Tamal:** *Saminduaren tamala* / *entzun neban*, *samur*, *ixil-barreanean* (34)

**Goibel:** *Dan-dana dago ixillik*. / **Goibel** eta *ixi-ixillik* (122)

**Itun:** *eresi kadenen samurraz tamalen* / *zauriei malko itunak* aterarik bigun (119)

**Garden:** *Eliz-kanpaien otsak garden* eldu dira, / *otoitz-billa*, *arru-zear*, *biotz barneetara* (123)

**Aratz:** *Garbi ta aratz* larreak, / *loraz eta margoz* (140)

**Mintzura:** *Mintzura* xaramatuta, / *bizi luzarik ez dauka* (121)

**Erio:** *Lizun-aiztoz zaurituta*, / *oiñak txakil ibilteko*. / *Arna-sea nekatuta*, / *erio ingurun yabilko* (121)

**Balbea:** *Gauaren ezkutu illunean* / **Balbearen** sorbatzak *dis-dis* dagi (236)

**Sorgindera:** *Sorgindera* zoroak zidorrak alaitzen (28)

**Anotsa:** *Bakartade itzelean*, *illen didarrez noa*, / *Balbearen anotsak* orma zaarretan ots (260)





*Karmel aldizkariaren idazleen egunean (2005).*

**Maratu:** *Piñudi baltzen erdian nago, / gogapenen zidorrez  
maratuta* (333).

**Aiotza:** *Balbea´ren aiotzak dis-dis dagi, illunpean, / biotz  
bagakoen argi zikinduaren bultzadaz* (335).



*Karmel aldizkariaren idazleen bazkarian (2006) (Azken argazkia).*

Berben erabileran oso aberatsa dogu. Jakina, bere garaiko semea izanik, ezagun ditu garbizale-ikutuak... baina hori, gaur eguneko idazle askoren gogokoa izan ez arren, beren-beregi hautaturiko bidea da, eta lotsatzekoa barik harrotzekoa izan leiteke haren ikuspegitik. Euskalkiak ondo lantzean ikusten eban euskeraren geroko bidea. Euskara batua, bere belaunaldiko gehienak legez, ez eban begi argiz ikusten. Ia beti euskera mordoiloa –berak esaten ebanez euskera *lorrina*– sumatzen eban oraingo idazle askoren batuan. Halan be, baekian batuan ondo idazten ebanak eta bestelakoak bereizten. Aurraitzen olerkian ez eze prosan be oraingo gazte eta helduok badogu zer ikasirik.

### Izaera

Santi Onaindiak ondo ezagutzen eban. Haren izaera holan laburtzen dau: “Izakeraz biozpera da Aurre-Apraiz, bakar-zale ta kaden-tsu, benetako poetak, sarri, izaten diranez. Baiña badaki alai ta pozik izaten be adiskideakaz alkartzen danean”<sup>5</sup>. Nik, egia esan, *Karmel*



<sup>5</sup> AURRE-APRAIZ'TAR Balendin, *Egunen Bidean*, Larrea-Zornotza, 1994 (5. or.)

eta *Oleri* aldizkariak eratu ohi zituan bileretatik baino ez neban ezagutzen; ez Ajangizko herri-bizitzan, ez baserri- eta kristau-giroan... Baina gogoetari eta kontenplaziori emona begitandu izan jat beti. Barne-bizitza aberatsekoa, bizitzari buruz eta batez be euskerari, literaturari eta olerkiari buruz irizpide edo ideia nahiko finkoak eta pertsonalak zituana. Edonor ez eban olerkarien Parnasoan onartzen. Behin baino sarriago entzun neutsan norbait olerkaritzat aitatzean: *–Hori olerkari...? hori bertso-idazle baino asko gehiago ez*. Komunikabideetan sarri samar agertzen diran gazte batzuei buruz be gauza bera: *–Horreek poetak diraa...?* –esan eban Gernika aldeko ahotssoinu gazi eta politean.

Bere giroan egoanean, berbalduna. Guztiei begirunea izanik, bere adiskideen adiskidea zan. Batzuetan gazi-gozoa. Ez zituan gordetzen bere aburu eta ideiak, nahiz eta berba-lagunaren gogoko izan ez. Fededuna eta eliztarra. Ajangizko elizan gogotsu esku hartzen ebalá entzun izan deutset hango eliz arduradunei: abeslari, monitore, irakurle... edozertan laguntzeko prest. Herriaren, kulturaren eta Elizaren zerbitzari leiala genduan, jasekoa eta jatorra. Baserritar jantzia eta bere erara ikasia. Politikan abertzale garbia eta betikoa.

## Azken agurra

1993. urtean Elhuyarrek argitaratu eban *Hiztegi Entziklopedikoak* aspaldi hiltzat emon eban. Holan dakar: **Aurre Apraiz, Balentin**. Euskal idazle bizkaitarra (Ajangiz, 1912-66). Orain, azken argitalpenean, zuzendu dau huts hori; bizirik agertu dau, argazki eta guzti. Txirritagaitik be, bizi-bizi eta gordin egoala, zabaldu eban norbaitek hil zalako barria. Asmo txarrez zabaldu eban, antza, albistea. Eta Txirritak bertsoak atera eutsazan, “Atso gezurti bati” izenburua jarriaz. Hona lehenengo bertsoaren hasiera eta amaiera:

*Ni bil naizela sortu omen du  
Aurrin-Azpiko atsuak,*



*Karmel aldizkariaren idazleen egunean (2005).*

...  
*bizi naizela jakin dezaten  
jartzera nua bertsuak.*

Txirrita ez dakit zenbat urte bizi izango zan bertso horreek aterata gero... Balendin, zorionez, urte askoan bizi izan da.



*Karmel aldizkariaren idazleen egunean (2006).*

Orain, ordua heldu danean, isil-isilik joan jaku. Hil zan egunean, ilunabarrean heldu jatan albistea adiskide batengandik. Apirilaren 19a zan; 20an, barikuan, arratsaldeko zazpitan jarri eben hileta-elizkizuna. Han izan ginan. Tamalez, *Karmel* hone-tako beste adiskide batzuk, beste eginbeharren batek eragotzita, ez eben joaterik izan. Sasoiz heldu ginan Ajangizko elizal-

dera. Jende mordotxua egoan ordurako: etxe-koak, adiskideak, herritarrak, handik eta hemendik Balendini azken agurra emotera joanak. Sakristian zazpi bat elizgizon; giza-legezko agurra alkarri eginda, holakoetan ohi dan erako berbeta laburra izan genduan joan jakunari buruz, gehienbat ha goreste-koa. Liturgiako zertzeladatuak, eliz kanta-kuak, eliz kantak aukeratu eta abar. Honeen artean, Errosario-ko Amari eskeinia, Ajangizko elizan sarri abesten dana eta Balendinen bihotz-bihotzekoa. Abesti hori aitatu zan elizkizunaren amaierarako, gure olerkariari agur egiteko. Baina gero, hobeto pentsaturik, holako euskaldun gailenen okasioetan *Agur, Jaunak!* abestea zala egokiena. Halan egingo zan, Errosarioko Amarena jaunartze osterako itziaz. Elizkizun go-



zoa egin jakon. Hitzaldian Balendinen bizitzako hainbat zertzelada agertu zituan aldarean buru izan zanak: Balendin euskaltzale eta olerkaria aitatu eban, baina batez be, une haretan era-  
 ra etorrenez, fededun zintzo eta eliztar legez agertu eban. Berta-  
 bertakoa, elizkizunetan gogotsu esku hartzen ebana, elizkizunak duintasunez egiteko ahal ebantxua egiten ebana: irakurle, abeslari zein monitore... Elizan *Agur, Jaunak!* abestu aurretik, hain maite eban Errosarioko Amaren kanta polita abestu jakon. Idazlantxu honetan jarritako azken berbak be, kanta horretakoak izatea nahi neban:

*Agur, Errosarioko  
 Amatxo ederra,  
 Amatxo ederra.  
 Aingeru ta gizonen  
 Pozkida zu zara.  
 Agur Errosarioko  
 Amatxo ederra.*

*Biztu dalako Jesus  
 aintzaz apaindurik,  
 aintzaz apaindurik,  
 zeru ta lurak dagoz  
 pozez alkaturik:  
 zeru ta lurak dagoz  
 pozez alkaturik.*

*Luis Baraiazarra Txertudi*